

## Europako ikerketa erakundeetan genero berdintasuna sustatzeko PLOTINA proiektua bigarren fasean dago

2017/01/16

Mondragon Unibertsitateko Diseinu Berrikuntza Zentroko Ainhoa Larrañaga eta Arantxa Gonzalez de Herediak, joan zen astean Warwick-eko Unibertsitatean egin zen PLOTINA proiektuaren hirugarren bilera parte hartu zuten. Bilera horretan, PLOTINA proiektuaren kontsorzioa osatzen duten hamar erakundeek euren erakundeetan egindako genero berdintasunari buruzko diagnostikoaren emaitzak partekatu dituzte.

Proiektuaren hurrengo mugarria, zeina aurtengo martxorako finkatu den, berdintasun planak diseinatzea da. Horrela, bilera honetako parte hartzaileek genero berdintasuneko planak garatzeko erreminten inguruko ezagutzak jasotzeko balio izan du, baita, sexua eta generoa aldagaiak ikerketan txertatzeko metodologiak ezagutzeko ere.

PLOTINA (Promoting Gender Balance and Inclusion in Research, Innovation and Training) proiektua EBko fondoekin finantzatua dago eta bere helburua da Europako ikerketa erakundeetan genero berdintasuna sustatu eta bermatzea. Proiektua 2016 urte hasieran abiatu zen, eta hurrengo hiru urteetan, ikerketa erakundeek egokitutako genero berdintasuneko planen garapena, inplementazioa eta ebaluazioa landuko du, beti ere, estrategia berritzaile eta iraunkorren bidez.

Ikerketa erakundeetan berdintasun planak inplementatzerakoan, alderdi hauek landuko dira: alde batetik, generoa integratuko duen kultura aldaketa bat suspertzea; bestetik, ikertzaile emakumeen garapen profesionala sustatzea, talentua galera saihesteko, eta, azkenik, ikerketan eta irakaskuntzan genero ikuspegia integratzea bermatzea.

PLOTINA proiektuaren kontsorzioa zortzi herrialdeetako erakundeek osatzen dute: Bolognako Unibertsitatea (Italia), proiektuko koordinatzailea, Warwick-eko Unibertsitatea (Erresuma Batua), Mondragon Unibertsitatea (Euskal Herria), Instituto Superior de Economia e Gestao (Portugal), Kemijski Institut (Eslovenia), Ozyegin Universitesi (Turkia), Zentrum fur Soziale Innovation GMBH (Austria), Jump Forum (Belgika), Centro Studi Progetto Donna e Diversity MGMT (Italia) eta Elhuyar (Euskal Herria).



Plotina proiektuaren bilera Warwick Unibertsitatean